



Tourra 91

# Indurainek Tourreko txirrindulari indartsuena dela erakutsi du

Banestoko nafarrak 27 segundu atera zizkion Bugnori atzoko etapan


**M**iguel Indurainek sekulako lasterketa burutu zuen atzo Lugny eta Maconen artean korritutako 57 kilometroko erlojupeko lasterketan. Aurrerabiatarrak 27 segundu atera zizkion bere aurretik handienaz Gatorade taldeko Gianni Bugnori. Indurainek Tour honetako txirrindularirik indartsuena dela frogatu du berriro ere.

MACON

Frantziako Tourraren aurtengo edizioa Morzinen amaitu zen etapan erabakita geratu zen arren, txirrindulari guztiak, atzoko erlojupeko lasterketaren zain zeuden. Lasterketa hasi eta asko eta asko ziren, sailkapen nagusiko lehen postua azkenaurreko etapa honetan erabakiko zela esaten zutenak. Azkenean ez da horrela gertatu, izan ere erlojupeko azken lasterketa honek, Indurainen nagusitasuna argi geratzeko besterik ez bait du balio izan.

Ostiralean Maconen bertan amaitu zen etapan garaipena eskuratu zuen Panasonic taldeko Ekimov soviatarra izan zen atzoko lasterketako denborarik onena lortu zuena, Lemond sartu orduko, 1.13.34 denborarekin. Etapa hau irabazteko faboritoa zen Jean Françoise Bernard frantziarrak ezin izan zuen soviatarren denbora hobetu eta Ekimovek baino 25 segundu gehiago behar izan zituen 57 kilometroetan.

**CHIAPPUCCIK** Indurain eta Bugnoren arteko alde handiegia zenez, atzoko etapan jokoan zegoena hiru-



Miguel Indurainek sekulako indarra erakutsi zuen atzoko etapan.

EFE

garren postua zen, izan ere, Chiappucci eta Motteten artean segundu gutxi batzuk besterik ez bait zeuden. Carrera taldeko gizonak bazuen horren berri eta bera izan zen denborarik onena egin zuen gizona, etapako hogeigarren kilometroan. Dena den, Quintanelliren gizona indartsu hasi zen arren ezin izan zituen Indurain, Bugno eta Lemonden markak hobetu. Hala ta guztiz ere, bere helburua bete zuen Chiappuccik, sailkapen nagusiko hirugarren postua

ziurtatu du eta.

Chiappuccik ondo hasi eta gaizki amaitu bazuen ere, ez zen gauza bera gertatu Gianni Bugnorekin. Gatorade taldeko gizona ez zen oso fin ibili lehen hoge kilometroetan, baina hortik aurrera Indurainek bakarrik lortu zuen berak baino denbora hobea. Banesto taldeko nafarrak sekulako lasterketa burutu zuen atzo eta irteeran Bugnorekiko zuen alde 3'09 takoa bazen ere, amaieran 3'36ra arte areagotu zen.

## Delgado: «Pozik nago Indurainentzat Tourrean lagungarri izan naizelako»

MACON

Gaur amaituko den Frantziako Tourra hasi baino lehen Banesto taldeko liderra zen Pedro Delgado ondo baino hobeto aritu izan zen atzo jokatutako erlojupeko lasterketan. 1988ko Tourra irabazi zuen gizona, sailkapen nagusiko hamaikagarren tokian zegoen atzoko etapa hasi orduko, baina lasterketa amaitu ondoren bederatzigarren postua eskuratu du, Once taldeko Eduardo Chozas eta Helvetia taldeko Gerard Rue atzean utzi ondoren. «Pozik nago burutu dudana lasterketarik. Dena den ez nau batere pozten Chozas izan delako atzean utzi dudana gizona.

Nahiago izango nuen beste nazio batetako txirrindularia izan bazen. Atzoko erlojupeko lasterketa, Indurain, Bugno eta Lemondentzako egokia zen, izan ere hasierako kilometroak kenduta, beste guztiak oso lauak zirelako. Miguelek sekulako denbora lortu du, alde batetik inor baino indartsuago dagoelako eta bestetik, mailot horia eroateak oraindik indar gehiago ematen duelako. Chiappuccik ere denbora oso ona lortu du eta horrekin batera hirugarren postua ziurtatzea. Mottet, bera baino hobeto ibiltzen da erlojupeko lasterketetan, baina gaur egun Chiappucci frantziarra baino askoz indartsuago dabil» esan zuen atzo Delgadok.

Pedro Delgado ez zen oso fin ibili Val Louronen amaitu zen etapan eta hortik aurrera bere lan guztia Indurainen aldekoa izan da. «Ez nintzen gustura ibili Tourmalet igotzen eta Tourra hasi baino lehen esan nuen bezala, errepideak esango zuen Banestoko liderra nor izango zen. Miguel Indurain ni baino hobeto ibili da eta hortan ez dago ezer esaterik. Dena den oso pozik nago Indurainentzat baliagarri izan naizelako. Txirrindularitzan gizon asko ari gara eta atzetik datozenek ere gogor jotzen dute. Horrek ez du esan nahi noski, nire karrera amaitutzat jotzen dudarik. Oraindik gauza handiak egin ditzaket» esan zuen atzo Delgadok.

Indurain

Txapeldun

Sailkapenak

Etapako sailkapena

1. M. Indurain (Banesto) .. 1.11.45
2. Gianni Bugno (Gatorade) .. 0.27ra
3. Greg Lemond (Z) ..... 0.48ra
4. C. Chiappucci (Carrera) .. 1.08ra
5. V. Ekimov (Panasonic) .. 1.49ra
6. J. F. Bernard (Banesto) .. 2.14ra
7. Melchor Mauri (ONCE) .. 2.14ra
8. V. Poulnikov (Carrera) .. 2.27ra
9. D. Zdanov (Panasonic) .. 2.32 ra
10. Charles Mottet (RMO) .. 2.40ra
11. Alvaro Mejia (Ryalcao) .. 2.51ra
12. Pedro Delgado (Banesto) .. 2.56 ra
13. Luc Leblanc (Castorama) .. 3.17ra
14. Frans Maassen (Buckler) .. 3.32ra
15. A. Leanizbarrutia (Clas) .. 3.51ra
16. A. Hampsten (Motorola) .. 3.57ra
17. Stephen Hodge (ONCE) .. 4.10era
18. L. Fignon (Castorama) .. 4.12ra
19. Rob Harmeling (TVM) .. 4.21era
20. M. Fondriest (Panasonic) .. 4.32ra
21. E. Chozas (ONCE) ..... 4.35era
22. P. Lance (Toshiba) ..... 4.37 ra
23. G. Theunisse (TVM) .... 4.39 ra
24. U. Ampler (Histor) ..... 4.40 ra
25. G. Winterberg (Helvetia) .. 4.40ra
26. W. Stutz (Weinmann) .... 4.46ra
27. A. Camargo (Ryalcao) ... 4.51ra
28. G. Rue (Z) ..... 4.53 ra
29. J. Simon (Z) ..... 4.54ra
30. G. Duclos-Lasalle (Z) .... 4.56ra

Sailkapen orokorra

1. M. Indurain (Banesto) .. 96.17.44
2. Gianni Bugno (Gatorade) .. 3.36ra
3. C. Chiappucci (Carrera) .. 5.56ra
4. Charles Mottet (RMO) .. 7.37ra
5. Leblanc (Castorama) .. 10.10era
6. L. Fignon (Castorama) .. 11.27ra
7. Greg Lemond (Z) ..... 13.13ra
8. Hampsten (Motorola) .. 13.40ra
9. P. Delgado (Banesto) .. 20.10era
10. Gerard Rue (Helvetia) .. 20.13ra
11. E. Chozas (Once) ..... 21.00era
12. A. Rondon (Banesto) ... 26.47ra
13. G. Theunisse (TVM) .. 27.10era
14. J. F. Bernard (Banesto) .. 28.57ra
15. Fondriest (Panasonic) .. 30.09ra
16. Denis Roux (Toshiba) .. 30.40ra
17. Eric Caritoux (RMO) .. 32.39ra
18. A. Camargo (Ryalcao) .. 32.54ra
19. Alvaro Mejia (Ryalcao) .. 33.52ra
20. F. Vichot (Castorama) .. 36.43ra
21. Gilles Delion (Helvetia) .. 38.43ra
22. Murguialday (Amaya) .. 39.11ra
23. J. Simon (Z) ..... 39.14ra
24. F. Philipot (Banesto) ... 41.56ra
25. Bourguignon (Toshiba) .. 42.32ra
26. S. Rooks (Buckler) ..... 44.49ra
27. T. Claveyrolat (RMO) .. 44.49ra
28. P. Esnault (Amaya) ..... 46.14ra
29. R. Conti (Arioste) .... 46.41era
30. Giovanetti (Gatorade) .. 47.06ra




Gianni Bugno.

## Chiappuccik ezin izan du Bugno gainditu

MACON

Claudio Chiappucci eta Gianni Bugnoren arteko harremanak txarrak direla ez da gaurko albiste. Bi gizon hauen arteko lehia izugarria da eta askotan sailkapenak alde batera utzi eta nahikoa dute bat bestearen aurretik geratzearrekin, Italiako Giroan Bugnok berak aitortu zuenez. Dena den bi gizon hauen ezaugarriak oso desberdinak dira. Carrerako liderra ez da oso regularra izaten baina ez-tanda egiten duenean kontutan hartzeko gizona da.

Bugno ordea, itzulia handietako sailkapen nagusia eskuratzeko gizon aproposa da. Atzoko lasterketan, Chiappuccik hirugarren postua mantendu beharra zuen eta irteeran abiatu eta gero sekulako erritmoan aritu zen. Horren ondorioz bera izan zen hogeigarren kilometroan denborarik onena burutu zuena, 21 segundu Bugno baino azkarrago. Dena den Carrera taldeko txirrindulariak ezin izan zuen alde hori mantendu helmugan, Gianni Bugnok berak baino denbora hobeagoa lortu zuen eta.



**MELUN-PARISE** 178 kilometroko etapa burutuko du gaur tropelak Miguel Indurain buru duela. Nafarraren ohorezko etapa izango den honek ez du inolako mendaterik izango, eta seguruenik sprintean jokatuko da, baldin eta azken metroetan norbaitek hanka egiten ez baldin badu. Sailkapen orokorrean ez da inolako aldaketarik izango.